

HAIZE KONTRA NORABIDEA TINKO ATXIKI

Biziren tokiko eta nazioarte mailako
2025-2028 bide orria



info@bizimugi.eu | www.bizimugi.eu | 05 59 25 65 52

Bizi!

1 | BIZI! ELKARTEAK AZKEN LAU URTEETAN ERAMAN DITUEN EKINTZEN EMAITZAK

A. Aitzina joan, haize kontra izanagatik

- 1) Lau urte karraskan klimaren eta gizarte-zuzentasunaren.. 4
- 2) Erreberitu eta hedatu 4
- 3) Bereziki ikusgarriak diren garaipenak eta aitzinatzeak 5

B. Gure ekintzen ardatz nagusiak

- 1) Lurraldea eraldatu 6
- 2) Munduaren bukaera, hilabetearen bukaera, ber borroka . 7
- 3) Aktualitateko aukerak baliatu 8
- 4) Bizi! ekosistema baten bihotzean 8
- 5) Jende komunitatea 9

C. Gure ekintzen mugak

2 | EGOERAREN ETA ERRONKEN AZTERKETA

A. Zitzu bizian, hondamendirantz

- 1) Ekologia: hondamendiaren larritzea 10
- 2) Antolaturiko geldirik egote urteak..... 11
- 3) Iritzi publikoaren egoera 12
- 4) Ezberdintasunaren erreinua 12
- 5) Eskuin muturra: gure geroa lanjerean 13
- 6) Mundu aldakorra 13

B. Dinamikak Euskal Herrian

- 1) Burujabetasun konkretuen oldarra 14
- 2) Alda, tresna berria 14
- 3) Etxebizitza larrialdia 14
- 4) Institutio mailako eraldaketak 15

3 | BIZIREN LEHENTASUNAK ONDOKO LAU URTEENTZAT

A. Euskal Herria Burujabe iparrorratz gisa

- 1) Lurralde proiektua biziarazi 16
- 2) Tokiko politika publikoetarik hoberena ateratu 16
- 3) Burujabetzak eraiki kapitalismotik ateratzeko 18
- 4) Aliantza berriak garatu gizarte zibilean 18

B. Alternatiba ekosozialak desoreka klimatikoaren parean

1) Metamorfosi ekologiko eta sozial bat abiatu	19
2) Klima klase herrikoien borroka bat bilakarazi	19
3) Alternatiba konkretuak zabaldu	20
4) Enpleguak: Iparraldeko ekonomia irudikatu	20
5) Habitata	21
6) Garraioak	21
7) Digitala	21
8) Lurraldeen arteko elkartasuna antolatu	21
9) Klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko erresilientzia eta egokitzapena antolatu	22

C. Politika klimatizidei buru egin

1) Proiektu klimatizida berriak geldiarazi	22
2) Helegiteak aurkeztu	23
3) Eskuin muturreko ideiei buru egin	23
4) Presidentetzarako hauteskundeak eta balizko krisi politikoak ..	24

4 | BIZIREN ANTOLAKETA ETA IBILMOLDEA HOBETU

A. Eskuin muturrari eta gero eta handiagoa den klima-larrialdiari ihardukitzen

1) Gure aktibitateak segurtatu, gure antolakuntza egokituz ..	25
2) Gure komunikazio tresnak egokitu	26

B. Azpiegiturak: abiadura handiagora pasatu

1) Lokal berriak, tresna berriak	27
2) Gure handinahikeriaren ahalak ukan	27

C. Lurraldearen eta haren aniztasunaren irudiz

1) Euskara	28
2) Generoa	28
3) Lurraldea saretu	28

D. Kolektiboaren indarra

1) Laguntzaileak: Biziren lehen aberastasuna	29
2) Formakuntza	29
3) Finantzak	29

GEHIGARRIAK

- Bizin diren komunikazio kanalen zerrenda
- Biziren ibilmolde eskema

1 | BIZI! ELKARTEAK AZKEN LAU URTEETAN ERAMAN DITUEN EKINTZEN EMAITZAK

“Haserrea dut erregaia, bortizkeriarik eza motorra.” Yazid Kherfi

A - Aitzina joan, haize kontra izanagatik

1. Lau urte karraskan klimaren eta gizarte-zuzentasunaren alde

§1 2020an idatziriko bide orri ausarta gauzatua izan da, kasik osorik, azken lau urteetan Bizi! elkarteak eramaniko lan handiari esker. 2020ko bide orrian apailaturiko estrategia egokia zen eta egokia izaten da oraindik hein handi batean.

§2 Bizi! jarduera maila gora batean egon da, azterketak, proposamen zehatzak, argitalpenak, ekitaldiak, ekintza ikusgarriak edo umorezkoak, hitzaldiak, formakuntzak eta abar eramanez.

§3 Bizi! klimari buruzko erreferentziazko erakundetzat daukate gaur egun ere, toki mailan baita hexagonoko Alternatiba sarean ere, azken hau Bizi! elkarteak egiten duenari adi egoten delarik eta gure gaitasunak edo esperientziak partekatzea eskatzen digularik.



2. Erreberritu eta hedatu

§1 Bizi! elkarteak 130 kide berri bildu ditu 4 urtez (+% 20). 678 kide zituen 2020ko maiatzean eta 808 2024ko maiatzaren 31n (+350 izan zirelarik 2016-2020 artean).

§2 Bizi! elkarteak bide berrietan ibiltzen jakin izan du arlo guzietan gero eta jende gehiago erakarriz, baita bere jotzeko indarra atxikitzen ere, kudeatzaile historikoak joan ondotik abiatutako trantsizio garaia bururaino eramanez. Euskal Herria Burujabe 2023 ekitaldiaren antolaketa arrakastatsuak, arlo horretan hasiberria zen kudeatzaile-talde batek eramanik, arduren banaketa eta talde berrien gaitasunen garapena erakutsi zuen.

§3 Jende esperientziadunen abiatzeak beste erakunde batzuetan aritzeko (Alda, Aupa autokidetza kooperatiba...), erakutsi du Bizi! elkarteak ekosistema garatuko duten taldeak

formatzen dituela, ikuspegi eta metodo berek animatzen dituzten partaideak bilakatzen direnak.

§4 Kalitate hain oneko militantismo bat atxikitzea ez da batere erraz, are gutiago dinamikak hautsi zituen Covid urteetako testuinguruan, elkarteak bere erresilientzia erakutsi bazuen ere. Haatik, Bizi! elkartearen ari diren boluntarioen kopurua ez dugula emendatu ohartu behar gara, nahiz eta klima larrialdiak azkarki eskatzen duen.

3. Bereziki ikusgarriak diren garaipenak eta aitzinatzeak



§1 Biziren Hitza Hitz batzordeak hilabete batzuk eman ditu eskola-jantokietan astean behin menu vegetariano bat zerbitzatzeko legea betearazteko kanpaina zorrotz baten ondotik. Bi bazkari ekoizlek bete dute araudia, eta biek, Zuberoatik Lapurdiraino, Iparraldeko 30 Herriko Etxetako 52 eskolatan 5.000 haur baino gehiagorentzat otorduak prestatzen dituzte. Klimaren eta haurren osasunaren aldeko garaipen hau aitzinatze bat da ikasleen plateren karbono-aztarna murrizteko.

§2 Ekintza bipilak, prentsa aitzinekoak, sentsibilizazioa, auzitegiko helegiteak, hautetsiekiko negoziazioak: Bizik kanpaina trinko bat burutu zuen 2024an, CADE eta Mouguerre Cadre de vie-rekin batera, Mugerreko hezeguneetako 3 hektarea hezeguneren kontserbazioa bermatzeko. Garaipen premiatsua hezeguneen garrantziaz, artifizializazio orokorraren bukaeraz eta enplegua eta klima uztartzen dituzten aterabideak plantan ezartzeko aukeraz kontzientziatzeko.



§3 Egituratzaila bezala identifikatua, Garraiobide alternatiboei buruzko kanpainak BABn hainbat garapen irabaztea ahalbidetu du. ATV-k 2020 urtea baino lehen egin lan luzeari esker, T2 tranbus linearako ibilbide dedikatuak eta bizikleta instalazioak hobeki kontuan hartu ziren, T1 linea ez zelarik nahikoa. Horri gehitu behar zaio Ingurumen¹ Kodearen L228-2 artikulua betearazteko eta Foch etorbidea berritzeko lortu diren Biarritzeko garaipenak, baita koronapisten betikotzea ere, BAB-koa salbuespen nagusia izanik, oraindik ezin baita bizikletaz gozatu, hautetsiek hitzeman bazuten ere. Garraioari dagokionez, Itsasuko tren geltokiaren birgaitzea ere aipatu behar dugu, herriko bizilagunek Biziren laguntzarekin 2022an lortua.

¹ Artikulu honek bizikleta-instalazioak plantan ematea eskatzen du hiri-errepideak sortzean edo berritzean.



§4 Garaipen hauek berriz ere berresten dituzte, praktikaren bidez eta gure bizitzetarako eta Iparraldeko ekosistemetarako ondorio zehatzekin, Biziren barnean azken 15 urteetan garatu eta findu diren metodoak. Oreka erradikal eta pragmatiko hau, deliberatua eta indarkeriarik gabekoa, gure kideek idatziriko lan berrietan deskribatzen da orain, François Verdet-en *Guide pour faire échouer des projets contre (la) nature* (Naturaren kontrako proiektuak porrot egitera eramateko gidaliburua) liburutik hasi eta Jon Palais-ren *Mende honetako borroka* libururaino.

§5 Biziren rola agerikoa duten garaipen zehatz hauek ez dute estali behar eredu jasangarri, burujabe eta solidarioaren aldeko lurraldearen gehiengo kulturalaren eraikuntzan eramana den sentsibilizazio eta goraipatze lana.

B - Gure ekintzen ardatz nagusiak

1. Lurraldea eraldatu



§1. Euskal Herria Burujabe lurralde proiektuak, Euskal Herri iraunkor, burujabe eta solidario bati buruzko gure ikuspegia formalizatzen du. Haren kalitatea eta ospea maila berrietara heldu dira zinezko liburuxka baten moduan argitaraturiko bertsio berri bat idatziz (eguneratua, aberastua eta sakondua). Zabaltze honekin batera, eduki berriak (zortzi marrazki-nota, antizipazio kontakizuna) eta 2023ko urrian 8.000 pertsona bildu zituen Euskal Herria Burujabe, hamarnaka hitzaldirekin, elkarten herrixkarekin, hainbat lekukotasunekin. Proiektu hori, Biziren, haren ekosistemaren eta, oro har, lurraldeko eragile guzien gogoetak elikatzeko pentsaturiko lan teorikoa da.

§2 Hitza Hitz batzordearen lana ezinbestekoa bilakatu zen 2020an plantan eman zen Metamorfosi Ekologikoaren Itunaren inguruko kanpainarekin, batez ere orain argi eta garbi identifikatzen duten hautetsi eta funtzionarioen artean. Hirurogei bat begiralek osatzen duten sareak informatzen, aztertzen eta laguntzen du edo hautetsiei presioa ematen. Txostenen eta aldizkarien argitalpenak aditu ikuspuntua ekartzen du eta datu-ekoizpen esanguratsua eskaintzen lurraldearen aitzinatzea ebaluatzeko. Hala ere, lan horretarako behar diren baliabideak kontuan harturik, ez da posible izan segitzen genituen 56 Herriko Etxeek Itunaren zazpi ekintza-eremuak osoki gauzatu ditzaten kargualdia bukatu baino lehen.

§3 Etxebizitza saila sakonki landu da 2020an bide orrian sartu ondoren. Eko-eraikuntzatik hasi eta etxebizitzarako eskubide zein lurren artifizializazioraino, lan esanguratsua egin da: hitzaldi antolaketa, hainbat ekintza eta ekitalditan parte hartzea, Se loger au Pays - Herrian Bizi plataforman parte hartzea, Hego Akitaniako eraikin xuhurraren Itunaren argitalpena, Xuhurtasun zoriontsu eta sortzailearen aldeko Mugimenduekin batera.

2. Munduaren bukaera, hilabetearen bukaera, ber borroka

§1 Bizik, jendarte eta auzo herrikoietako bizilagunak defendatzen dituen Alda mugimendua abiarazten parte hartu du. Lokal eta ekipamendu partekatzeak, ekitaldietan elkarrekin parte hartzeak (Maiatzaren 1ean, Klima Egonaldian, Baionako Bestetan), eta militanteen inplikazioak, alde batetik Aldaren arrakasta babestu dute eta, bestetik, etorkizunean sinergia indartsuak sortzen ahalko dituzten zubiak sortu dituzte Biziren eta Aldak erakarritako ehunka pertsona berrien artean.

§2 Migratzaileak dira klima aldaketaren ondorioen eta eskuin muturraren eta erreakzionarioen aiherkunde gero eta gogorragoaren lehen biktimak. Bizik azken urteotan ekintza franko egin dituen talde dedikatu bat animatzen du: omenaldi-ekintza bat Hendaian, Baionako taula estaltzeak, 2023ko asilo-immigrazio legearen bozketari eginiko erreakzioak, "Gure herria elkartasuna deitzen da" kanpainan parte hartzea, etab. Patxokin, urtats egun solidarioa hitzordu bateratzaile gisa finkatu da, lagun arteko girokoa eta engaiatua, urtero 3.000 euro baino gehiago bilduz migratzaileekiko elkartasunaren arloan diren elkar-teentzat.

§3 2020an martxan ezarritako talde digitalak tresna digitalek kliman eta gizakiengan duten eraginaren diagnostikoa egin zuen, hitzaldi bat antolatu eta hainbat tailer animatu zituen Digital Cleanup Day-aren karietara.



3. Aktualitateko aukerak baliatu

§1 Aldi berean segitzen dituen hainbat lan ardatzek ez dute kontzientziazioa pizteko eta borroka kulturala burutzeko gertaerak baliatuzetik trabatu Bizi!: AHT/LGV GPSOren kontrako ekintza franko, Donibane Lohizunen urteroko hegazkin-ikuskizunaren salaketa, ostreopsis mikroalgaren agerpenaren arrazoiak nabarmentzea, uholde-aldi desberdinetan eginiko argazki-ekintzak, laborantza herrikoari sustengua, Kanboko Marieniako lurrak defendatzeko borrokaren kariatara mobilizazioetan parte hartzea, erretreten erreformaren kontrako mobilizazioan parte hartzea izaera bidegabea eta metamorfosi ekologikoarekin duen bateraezintasuna nabarmentzeko, eskuin muturraren kontrako kanpaina lasterra diputatu biltzarraren desegitetik landa, ...



§2 Bizik urte batzuk daramatza Ipar Euskal Herriko eta Aturri aldeko Publizitatea Geldi kolektiboan parte hartzen. Herriarteko Tokiko Publizitate Araudiaren garapena 2023 hasieran identifikatu zen Bizin Publizitatea geldi taldea abiarazteko eta beharrezko desazkundearen ordezkari kontsumo neurrigabea bultzatzen duen eta kapitalismo ereduaren muinean den publizitate makinari presioa egiteko.

§3 Burujabe ekitaldiaren inguruko bultzadak 2023 bukaeran, hainbat urtez geldirik egon zen ekofeminismoa taldea berriz abiaraztea bultzatu zuen. Taldeak ekofeminismoari buruzko formakuntza emanez hasi zen kontzeptu hau hobeki zabaltzeko. Ondotik Iparraldeko beste erakunde feministekin bildu zen ekosistema honetan nola integratu ikusteko, eta horrela erakutsi zuen bere ekarpen metodologikoa eta mobilizazio gaitasuna, martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko mobilizazio egunetan edo beste kolektibo batzuekin antolaturiko ekitaldietan bezala. Beraz, 2024ak balio izan zuen taldea ekosistemaren barnean ezagutarazteko eta ondoko 4 urteetarako estrategiaren lehen pausuak plantan emateko.

4. Bizi! ekosistema baten bihotzean

§1 Klimaren borrokaren berezitasunetako bat da eraldaketa erradikala behar duela arlo guzietan. Horregatik, Bizik bere aliantza lana segitu du sektore frankorekin eta hainbat eragile motarekin: euskal kultura eta hizkuntza sektorearekin (Euskaraz Bizi!n taldea, Aberri Egunerako edo EHZrako laguntzaile taldeen eraketa, euskararen aldeko aldizkako lasterketa den Korrikan parte hartzea, etab.); bere parte hartzearekin edo formakuntzen bidez, borroka berriak lagunduz, hala nola Angeluko Juzan oihana defendatzeko; Bakegileekin batera Euskal Herriko bake prozesuan engaiatuz; eta gizarte zibila biltzen duten hainbat erakundetan parte hartuz, hala nola Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluan.

§2 Bizik alternatiben ekosistemaren garapena lagundu du eta Aupa auto partekatze ko-operatiban eta Patxa'ma deseraikuntzarako egituraren gobernantzan parte hartu du azken hau SCIC bilakatzean. Bizik ere lagundu du Enargia energia berriztagarrien tokiko hornitzailea bere proiektu kooperatiboa, ekologikoa eta eraldatzailea segurtatzen.

§3 Euskal Herria Burujabe ekitaldiaren aitzineko zazpi jauzien bultzadak aukera eman zuen Hegoaldea barne hartzen zituen zazpi probintzietako erakundeekin loturak sortzeko.

5. Jende komunitatea

§1 Bizi! erakunde militantea izateaz gain, giza komunitate bat ere bada, eta “ondasun jabetza gutiago, lotura gehiago” sustatzen saiatzen da: bilkuren ondoko giro atsegina, laguntzaileen apairuak, ospakizun gaualdiak, aholkuak eta konponketak trukatzeko laguntza-sareak. Gure borrokei energia eta zentzua ematen dien giro alai eta besta airekoa bermatzen dugu.



C - Gure ekintzen mugak

§1 Eraldaketa ekologiko eta soziala ez da obratzen ari klima-aldaketa 1,5 °C-ra edo 2 °C-ra mugatzeko behar den erritmoan eta eskalan. Baitezpadako neurritasunetik hasi eta lanaren eta aberastasunaren banaketara, "hazkunde berdearen" ezintasuna barne, borroka kulturala oraindik ere eraman behar da anitz alderditarik, kontakizun neoliberalak hausteko.

§2 Gure anbizioen kontra joanez, Biziren lurralde mailako erroztatzea gehiago kontzentratu da BAB eskualdean, Bizi Larrun taldea (Hego Lapurdi) pausan ezarri delarik. Zaintzaileen sare bat abiarazteak eta Barnekalde eta Xiberoako taldeen presentzia jarraituak ez dute konpentsatzen Biziren osaeran eta bizilagunek duten pertzepzioan den desoreka hori.

§3 Biziren barnean euskararen lekua etengabeko kezka da. Gure erakundeak euskaldun guti erakartzen ditu, eta horrek ondorioak baditu barne maila desberdinetan: bozeramaileak aurkitzeko zailtasunak, itzulpen taldea ez berritzea, eta euskararen erabilera oso eskasa gure bulegoetan. Bizik komunikazio elebiduna segurtatzen du publikoarekin, bere kide frankofonoen artean euskararen inguruko sentsibilizazioa pizteko eginkizuna betetzen du, formakuntza tresnak eskaintzen dizkie eta euskal komunitatearekin lotzen ditu. Lan hau hauskorra da oraindik, pertsona kopuru ttipi baten gainean oinarritua baita.

§4 Bizik ez du baliabiderik aurkitu 2015eko "10.000 lanpostu klimatiko" Iparraldean ikerketa eguneratzeko eta sustatzeko.

§5 Ekofeminismoa oraino gutiegi ezagutzen, ulertzen edo integratzen da, Biziren barnean ere. Alta, sekula baino gehiago, klima mugimenduak, elkarrekiko inter-dependentzia eta (pertsonen, ekosistemen eta klima egonkortasunaren) zaintza erdigunean ezartzen dituen eta esplotazioaren eta bizitzen hierarkizazioaren logika desegiten dituen ikuspegi integratzaile bat behar du. Ekofeminismoak ikuspegi hori osatzen du.

2 | EGOERA OROKORRAREN ETA TOKIKO MAILAREN, BAI ETA ERRONKEN AZTERKETA ERE

“Gure ekonomia Lurreko bizitza mota askoren kontra borrokan ari da, gizakiaren bizitza barne.” Naomi Klein

A - Zitzu bizian, hondamendirantz

1. Ekologia: hondamendiaren larritzea

§1 2024an, lehen aldikotz, planetak 1,5 °C-ko berotze-heina gainditu zuen 12 hilabetez segidan. Erritmo horretan segitzen badugu, 1,5 °C-ko heina 2030 eta 2035 artean lortzea aitzinikusten da. Mende bukaerarako +3,1 °C-ko planeta mailako berotzea proiektatzen duen ibilbide batean gaude; edo +4 °C frantses Estatuan. Gertakizun katastrofikoak.

§2 Bederatzi planeta-mugetatik sei gaindituak dira jada: bioaniztasunaren kolapsoa, ur gezaren zikloaren etena, kutsadura kimikoaren areagotzea, etab. Ozeanoak ere azidotzeari dagokionez beren mugetara hurbiltzen ari dira. Oihanak eta ozeanoak gero eta karbono gutiagoren biltzaile bilakatzen ari dira. Hainbat erronka ekologikoren arteko konpromisoetarako prestatu behar dugu, deskarbonizazioa beste planeta-muga batzuen kaltetan ez dadin obra: adibidez, laborantza-lurretan sistema fotovoltaiakoak ezartzearen gaia, energia-burujabetza garatzeko eta erregai fosiletatik ateratzeko.



§3 Hegoaldeko herrietako biztanleriak berotze globalaren ondorioen zama handiena jasaten ari dira (gaur egun +1,2 °C-ean da), arriskuei esposizio handiagoa duten eskualdeetan kokatuak baitira, horiei buru egiteko baliabide gutiagorekin, alta egoeraren erantzukizun gutien dutelarik.

§4 2022 urteak elektroxoka bizi izan zuen Hexagonoan. Sute erraldoiak, berote handiak, tenperatura errekorrak, lehorteak, hainbat tokitan ura kamioiz garraiatu behar izateraino: eskualde guztietan, populazioak ikusten eta bizitzen du klimaren desoreka saihestezinak zer erran nahi duen konkretuki.

§5 Klimaren desorekari moldatzea gero eta larriagoa bilakatzen ari da, desoreka horren ondorioak larritu ahala. Hari prestatu behar dugu, baita ildo hau atxiki ere: “gradu hamarren bakoitzak balio du”; arintzea eta moldatzea elkarri lotu behar ditugu: klimaren desoreka ahal bezainbat mugatu, eta saihestezinak izanen zaizkigun aldaketei moldatu.

2. Antolaturiko geldirik egote urteak

§1 Klimaren aldeko martxek eta grebek sorturiko indar harremanak Itun Berde Europarra ahalbidetu zuen; honek estatu mailako politikak goiti tiratzen zituen, baina gaur egun oso ahuldua da.

§2 Macronen politika ekologikoa hondagarria da, Klima eta Erresilientzia legetik (honek Klimarentzako Konbentzio Herritarraren lan txalogarria kasik deuseztatu baitu) Estatua kondenatzeraino. Hazkunde berdearen mitoa eta faltsuzko konponbideak gogorki salatu behar dira, izan “keroseno berdea”, megaurtegiak, AHTa ala nuklearraren berriz bultzatzea.



§3 Klimaren aldeko borrokek norabide globala ez du argi, eta “sistema aldatzeko, ez klima” begi bistako estrategia globalik ez da, ez Euskal Herrian ez munduan zehar. Ekintza modu ez bortitzak ez dituzte begi bistakotzat belatunaldi gazteek. Azken urteotan ez dugu ere susperraldirik ikusi, ekintzak erronken mailan ezartzeko modukoa izan litekeenik.

§4 Protesta ekologistek gero eta gehiago desobeditze zibilaren (ez bada sabotatzearen) moduak erabiltzen dituztela eta, errepresioa indartzen da (adibidez Erresuma Batuan 2 urteko kartzela zigorra, museo batean berina baten babespeko margolan bati zopa igortzeagatik) eta mugimenduei “ekoterrorista” izendapenez ospea zikintzen zaie. Testuinguru honetan, publiko zabalaren onespina lortzeko, are garrantzitsuagoa da erradikaltasun ez-bortitza garatzea. Elkarleen askatasunen murrizketak errepresioaren bertzeko ondorio bat dira: Itun Errepublikarra jarraitzeko hitzematea, elkarteei emarientzako zerga-kenketak deuseztatzeko mehatxuak.

3. Iritzi publikoaren egoera

§1 Gaur egun, klimaren desorekari erantzuna ez da lehentasuna populazioaren gehiengoarentzat, bertzelako kezka anitz dituela eta. Hiru faktorek klimaren aldeko ekintzak oztopatzen dituzte, eta horien aurka borrokatu behar da.

§2 Fatalismo sentimendu bat plantatzen ari da jendeen gogoetan, uste baitute klimaren borroka galdua dela.

§3 Bidegabekeria edota mespretxu sentipena handitzen da ekologiaren izenean biztanleriari indar bat egitea eskatzen zaionean, gutiengo pribilegiatu bati ez ezik. Sentipen hau baliatzen du eskuin muturrak ekologia politikoa « ekologia zigortzailea » dela salatzen duenean.

§4 Azkenik, media eta sare sozial batzuetan desinformazioa garatzen da eta biztanleriak ez daki gehiago zer sinets.

4. Ezberdintasunaren erreinua

§1 Politika neoliberalak larriagotzen dituzten ezberdintasunak gero eta ageriagoak dira, mundu mailan baita herrialdeetan ere. Paraleloki, multinazionalak iñoizko etekin eta irabazkinak egin dituzte. Nahiz batzuetan mobilizazio handiak gertatu diren, babes sozialak ahulduak izan dira: erretreta hartzeko adina, langabetuen laguntzaren gogortzea, RSaren baldintzatzea...

§2 Aberatsenak zergapetu gabe eta enpresa handiei baldintzarik gabe (eta emaitzarik gabe) diru publikoa banatu dien estatu frantsesak, orain, aurrekontu murrizketa handiak antolatzen ditu. Zerbitzu publikoak kaltetuak dira baita Frantzia mailako eraldaketa ekologikoaren diruztatzea nola lurralde kolektibitateen aurrekontuak ere.

§3 Hazkundera, lehiakortasuna, globalizazioa erabiltzen dituzte beti aberatsenentzat onuragarri eta klase herrikoientzat kaltegarri diren politika hauek onarraratzeko.



5. Eskuin muturra: gure geroa lanjerean

§1 Handituz doan neoliberalismoaren ukapenak elkarren kontra diren bi proiektu alternatiboren garapena sustatzen du: ezker erradikalarena eta eskuin muturrarena.

§2 Azken urte hauetan, mundu osoan (Estatu Batuetan, Argentinan, Brasilen), Europan eta Frantzian, eskuin muturra boterera heldu edo era ikusgarrian garatu da. Azken hamarkadetan globalizazio kapitalistak eragin dituen haserreak, beldurrak, bizi baldintzen andeatzea erabiltzen ditu. Ideia atzerakoi eta eskuin muturrekoek debatea saturatzen duten mediak emeki-emeki erosiz garatzen da baita eduki bereizgarriak eta « egia alternatiboak » bultzatzen dituzten sare sozialak baliatuz ere.

§3 Frantzian, boterera heltzeko zorian da. Legebiltzarrean, « errege egilearen » rola jokatzeko du, ibilbide atzerakoa eta ekologiaren kontrako eraso inposatzen ditu. Argi izan behar dugu 2027an boterera hel daitekeela eta gogoan atxiki urteetan indar politiko nagusi bat izateko arriskua badela.

§4 Arrazakeriaren eta norbanakoak elkarren artean lehian dauden mundu ikuskeraren gorakadak ondorio oraino larriagoak izanen ditu, nahasmendu klimatikoak gatazkak, eskasiak, katastrofeak, eta beraz jende mugimenduak areagotzen dituen munduan.



6. Mundu aldakorra

§1 Gerla dramatikoek Ukrainan eta Ekialde Hurbilean ondorio latzak dauzkate Estatuen arteko harremanetan, energia eta lehengaien prezioetan. Eragin psikologikoa badute, Euskal Herriraino, beldur giroa sorraziz.

§2 Prestatu behar gara krisi eta konfliktoen biderkatzeari, baliabideak gero eta bakanagoak izanen diren munduan. Gero eta segurtasun guttiagorekiko mundu bati buruz goaz. Ustekabea jalgi daiteke, guri dagokigu hoberena ateratzea.

§3 Gure gizarteekin talka egin du ere Adimen Artifizial generatiboen normalizazioak: horien garapen esponentzialak tentsio ugari sortzen ditu. Gure min guzietan mirakuluzko aterabidea ekar liezaiekeen teknologiaren mitoaren aitzinean, ikertu beharko da nolako gizarte aldaketa (informazioaren fidagarritasuna, errealarekiko harremana, Big Techs delakoen eragina), nolako aldaketa ekologiko (GES/BEGen hedapen gehigarria, uraren eta energiaren kontsumo izugarria), zein aldaketa ekonomiko (enpleguen birmoldaketa, langabezia), eta zein gaitasun desjabetze erakarriko dituzten, eta haien erabilerak zaindu.

§4 2020ko udaberriko etxe-zokoratzearen lehen hilabeteek, momentu batez munduaren ikuskera berria ireki zuten: bat-bateko elkartasuna, ehun miliarka diru publikoren desblokeatzea hil ala biziko premia global batentzat, berotegi efektu iturri diren gasen

hedapen murrizketa, kontzientzia hartzea gutienik pagatuak diren aktibitateak beharrezkoenak direla eta, autoak gelditzen direlarik, mundu biziduna hobeki hauteman daitekeela. Ondotik, «lehenagoko mundua» berriz etorri da: mesfidantza orokortua, klimato-negazionistak, antipatia ekolo eta zientifikoei begira, hautetsien gibel egitea klima eta bioaniztasunaren gaian. Panorama honek engaiamendua deitzen du gatazka kulturalean, mundu ikuskera baikorragoak berriz irekitzeko.

B – Dinamikak Euskal Herrian

1. Burujabetasun konkretuen oldarra

§1 Burujabetasun konkretuetan oinarritutako hurbilketak aitzina doaz. Euskal Herri Burujabe proiektuaren erdian daude. Haiei esker, gureganik hurbilen diren bizi baldintzez berriz jabetzen gara, besteak beste eragin klimatikoak azkarki murrizteko.

§2 Iparraldean, Bagira prozesuaren emaitzek agerian uzten dute nahasmendu ekologikoen aitortzak, burujabetza konkretuen garrantziak eta ikuspegi erradikal-pragmatikoak aitzinatze handiak egin dituztela eta mugimendu abertzaleak partekatzen dituela.



§3 Hegoaldean ere, dinamiken sortzea ikusten ari gara, Hernaniko Burujabetzak topaketan agerian egon den bezala.

§4 Eskuin muturrak frantses Estatuan baino indar guttiagorekin segitzen du. Biziki ahula Hegoaldean, aitzinatze ikusgarria ukan du Iparraldeko hauteskundeetan, non antolakuntza aldetik franko ahul segitzen duen, baina egituratzen hasten da.

2. Alda, tresna berria

§1 Biziren eta Manu Robles-Arangiz Fundazioaren gogoeta bateratuen ondotik 2020an martxan ezarri zen Alda, eta gaur egun ezinbesteko mugimendua da Ipar Euskal Herriko auzo eta jendarte herrikoietako biztanleak defendatzeko. Aldak tresna indartsu eta berritzaileak sortu ditu: 40.000 etxetara banatzen den hiruhileko aldizkaria, sortu zenetik 1.800 familia eta pertsona baino gehiagori emaniko laguntza, auzoko kolektiboen garapena, etxebizitza sozialeko instantzietan hautetsiak. Pausoz pauso, jendearen bizitza hobetzen duten garaipen zehatzekin konbentzitzen du. Horrela, klase herrikoiei erakusten die elkarrekin irabaz dezakegula. Orain arte edozein erakunde militantetik urrun ziren biztanleekin loturak sortzen ditu.

3. Etxebizitza larrialdia

§1 Etxebizitza krisia oraino larria da. Mobilizazio sendoek, esparru politikoan aliantza zabalak sortuz, lehen aitzinatze estrukturalak ekarri dituzte (Airbnb-ren erregulazioa, presio handiko eremuan alokairuen mugatzea) eta herrian bizitzeko eta aloitzeko eskubidea bermatzeko, merkatua erregulatzearen aldeko iritzia publikoa sortu dute.

4. Institutuzio mailako eraldaketak

§1 Hitzaz hitz batzordearen azken txostenak metamorfosi ekologikoaren arloan aitzinatze bat erakusten du, baina ez da nahikoa. Ikuspegi orokorrak harago, gaur egun aitzinatzea posible den egoera batean gara oraindik, Herriko Etxe eta Elkargo mailan. Gure esku da hortaz ahal bezain bat baliatzea, eta, eraldaketa ekologikorako beharrezkoak diren neurriak aitzinera eramateko arrazoi on guztiak kontuan hartzen dituzten koalizio zabalak sortzen jakitea.

§2 Energia Trantsiziorako eta Plangintza Ekologikorako Idazkaritza Nagusiaren sortzea Euskal Elkargoaren barnean, baliabide berriekin eta zeharkako misio batekin, aitzinatze bat da. Haren potentziala osoki baliatua izan behar da.

§3 Lurralde Koherentzia Plan berriak anbizio ekologiko sendoa gorpuzten du lurraldearen berronaketaren bidez, eta hori PLUi-n (Herriarteko Tokiko Hirigintza Planean (hTHP-n)) islatu behar da eta plantan ezartzen diren politiketan gauzatu.

§4 Batera plataforma berrabiaraziz, instituzioaren arloan aldarrikapen berriak sortzen ari dira, Iparr Euskal Herriari eskumen berriak emateko.

§5 Bake prozesuko kapitulu bat hesten ari da 2016an jendarte zibilak hasiriko, eta Bizi! parte-hartzaile izan zen, armagabetze prozesuaren bukaerarekin. Bakegileek zigor dispensa ukan zuten eta gertaeren eta haien motibazioen egia berriz finkatzeko parada ukan zuten.



3 | BIZIREN LEHENTASUNAK ONDOKO 4 URTEENTZAT

«Askoz hobeki bizi gintezke askoz gutiagorekin, molde ezberdinean ekoiztuko bagenu eta biziko bagina, jendarte-harreman mota desberdin batekin». André Gorz



A – Euskal Herria Burujabe iparroratz gisa

1. Lurralde proiektua biziarazi

§1 Bizik "Euskal Herria Burujabe" liburuan bilduriko proposamenak zabaltzen eta ezagutarazten segituko du. Kapitulu berriak idatziko dira gaur egun aipatzen ez diren gaiei buruz.

§3 Bizik hainbat gai ekologikoren artean gero eta beharrezkoagoak izanen diren erabakietan ezarriko du arreta, hala nola, elikadura zein energia burujabetzaren arteko bidegurutzean den agri-voltaikoa, edo hezeguneak arriskuan ezartzen dituen Mugerreko trenbidezko garraioaren garapen proiektua.

§4 Bizi! eratuko da eta zehaztasun handiagoz integratuko ditu beste planeta-mugekin dauden loturak: ur gezako baliabideak, ozeanoen azidotzea, bioaniztasunaren kolapsoa, lurzoruen erabileraren aldaketak, etab.

2. Tokiko politika publikoetarik hoberena ateratu

§1 Hautetsiek palanka indartsuak dituzte Herriko Etxe eta Euskal Elkargo mailan eraldaketa ekologikoa arrakastaz gauzatzeko. Izan ere, tokiko lurralde kolektibitateak berotegi-efektuko gasen isurien % 15aren erantzule zuzenak dira eta zeharka % 50arenak (beren garapen-aukeren eraginaren bidez). Gainera, ekintza-palanken % 75 tokiko mailan dira.

§2 2026ko Herriko Etxe eta Elkargo mailako hauteskundeak funtsezkoak izanen dira, ardura handiko postu horiek beharrezko aldaketen hedaduraz eta premiaz jabetzen diren talde boluntaristek beren gain hartuko dituztela segurtatzeko. Bizik kanpaina handi bat martxan ezarriko du: boterean diren taldeen 2020-2026 kargualdiko emaitzak zabalduz, tresnak (oinarrizko neurriak eta formakuntzak) hautagaien zerrendei eskainiz, erronkei buruzko sentsibilizazioa areagotzeko ekitaldiak antolatuz eta hautagai batzuen greenwashing edo praktika klimatizidak agerian uzteko ekintzak burutuz.



§3 Bizik Hitza Hitz kanpainaren dispositiboa moldatuko du 2026 -2032 agintaldirako. Udal guztien eta gai guztien jarraipen osoa egin ordez, kanpaina logika lehenetsiko da, benetako aurrerapenak egiteko herri berezi batean edo neurri gako baten inguruan. Hautetsi eta herri zinez boluntaristak laguntzeko lan zehatza egingo da. Indar handiagoa jarriko da elkargoaren politikak jarraitzeko, horiek baitituzte eragin handieneko baliabideak. Garaia ez denez gehiago konpromisoei edo borondate onaren erakustaldiari eskainia, neurriak ez dira izenpetu beharko. Bizik hautetsi eta funtzionarioekin frogatua izan den oreka zainduko du: pedagogia, ekimen eredugarrien balioztatzea, praktika atzerakoien salaketa.

§4 Arloz arloko aurrerapenak kanpaina berezituen bidez bultzatuko dira, egutegi instituzionalaren aukerak eta betebeharrak kontuan hartuta. Publizitatearen murrizketaren inguruko lana "RLPi"-ren prestakuntzaren kariatara, edo 2028a baino lehen bost "PLUi" plantan ezartzea bi adibide dira.

§5 Hitza Hitz-en baitako kanpaina logika hau egituratzailea izan liteke Bizirentzat. 2026ko herri hauteskundearen aurreko mobilizazio lanari esker, tokiko taldeak indartzea eta berriak sortzea azter daitezke. Dinamika horretan, etorkizunean laguntza zelulak sortzea pentsa liteke lurralde osoan, herrien eta hautetsien ahalik eta gertuen. Zelula horiek lotura sortuko lukete eta indar lokalak aktibatuko lituzkete, oraingo alternatibak garatzeko eta berriak abiatzeko.

§6 Bagira prozesuaren emaitzen bidez edo Batera plataformaren berpiztearekin, dinamika berri bat sumatzen da Ipar Euskal Herriko aldarrikapen instituzionaletan, estatus bereziko elkargo baten alde. Helburua da tokiko eskumenak indartzea, herritarrengandik ahalik eta hurbilen, eta hori bat dator gure lurralde proiektuarekin. Borroka horiek epe luzeak badira ere, aukerak baliatu beharko ditugu, bereziki Batera-ren ingurukoak, eta mobilizazioan parte hartu, tokiko eskumenak eta behar ditugun baliabideak irudikatzeko, lurraldearen metamorfosi ekologikoa abiatzeko.



3. Burujabetzak eraiki kapitalismotik ateratzeko

§1 Ekintza instituzionalaren bidezko eraldaketa perspektibak, hexagono,, Europa eta mundu mailan, oso eskasak dira. Ondorioz, burujabetzak Iparraldetik eraiki behar dira, bai zuzenean gizarte zibilaren bidez, bai tokiko politika publikoen bidez. Zenbat eta gehiago eraiki, orduan eta planeta suntsitzen duten eragileekilako menpekotasunetik gehiago urrunduko gara, orduan eta ahulago bihurtuko ditugu sistema kapitalista eta merkatu-logikak, eta are gehiago indartuko dugu izpirituetan eta materialki eredu jasangarri, burujabe eta solidario bat.

4. Aliantza berriak garatu gizarte zibilean



§1 Bizik gizarte zibilaren egitura anitzekin loturak eginen ditu (elkarteak, klubak, enpresak, eskolak, ikuskizunen mundua...) eta gauzatu ekimenen eta lanaren baloratzeari berrmatuko da. Klima ardatz nagusia ez den ekitaldietan Biziren presentziak zubiak eraikiko ditu larrialdi klimatikoaren eta beste gai sozial eta kultural batzuen artean.

§2 Bizik bere eginahalak egiten segituko du euskal kultura eta hizkuntzari buruz, eta sektore horietako eragileekin zubia egiteko: presentzia lurraldeko gertakarietan (Herri Urrats, Korrika, EHZ...), euskararen erabilpena Bizin, lurralde burujabearen proiektuaren aurkezpena, hizkuntza, kultura eta ekologiaren arteko loturen azalpena.

§3 Ekofeminismo taldeak kontzeptua hedatuko du eta lagunduko ditu Biziko militanteak hartaz jabetzen. Biziren kanpainak lagunduko ditu ikuspegi ekofeminista orokor batean egokitzen. Funtsezko mobilizazioak sustengatuko ditu (martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko manifestazioak) mugimenduaren antolatze metodoa eta mobilizatzeko indarra ekarriz.

§4 Ipar Euskal Herrian, digitala jasangarriaren inguruan ekosistema bat sortu, tokiko eragileak sarean ezarriz elkarrekin ekintzak burutzeko hainbat arlotan, hala nola burujabetza digitala, tresna digitalen eragin ekologikoaren ttipitzea eta tresna horiek metamorfosi ekologiko eta sozialaren zerbitzura jartzea.

B – Alternatiba ekosozialak desoreka klimatikoaren parean

1. Metamorfosi ekologiko eta sozial bat abiatu

§1 Bizik betidanik klimaren eta gizarte gaien arteko lotura egiten duten kanpainak bururatu ditu. Gaur egun, sekula baino gehiago, ezagutzen ditugun krisi ekologiko eta sozialekin alternatiba ekosozialak proposatu behar ditugu, hau da, metamorfosi ekologikoaren alde eta herritarren beharren zerbitzura.



2. Klima klase herrikoien borroka bat bilakarazi

§1 Klase herrikoia klimaren aldeko borrokari lotzea funtsezko erronka da gehiengo soziala lortzeko eta geldirik egotearen aldekoen kontra balantza makurrarazteko. Jendea gabe eginiko aldaketa haien kontra eginen litzateke, alderantziz ahal bezainbat jende inplikatu behar delarik, klima-aldaketaren ondorioek gehienik kalteturikoak barne hartuz.

§2 Klase herrikoietaz ari garenean, hilabete bukaerara heltzeko zailtasunak dituztenetaz ari gara, etorkizunaz beldur direnetaz.

§3 Bere borroka guzietan, Bizik segurtatu behar du borroka guzi horiek klase herrikoien zerbitzuko direla, eta ororen buru, hobeki elikatzeko, aloitzeko eta mugitzeko balio dutela...

§4 Aldarekin, Ipar Euskal Herriak klase eta jendarte herrikoia defendatzen dituen mugimendu indartsu bat badu orain. Alda da Biziren partzuer hurbilena. Bi mugimenduen arteko osagarritasuna eta sinergiak kezka izan behar dira Bizirentzat. Bereziki, Aldak lorturiko aitzinatzeen dimentsio ekologikoan eta Biziren lanaren dimentsio sozialean arreta emanez.

§5 Epe luzera, Aldaren lanak ideia ekologikoak klase herrikoietan zabaltzen laguntzen du. Baina badira oraindik ere eraldaketa ekologikoaren beharra berenganatzen ez duten biztanleriaren beste sektore batzuk. Aldarekin lan egiteaz gain, Bizik etengabe bilatuko ditu klima aldaketaren inguruko borroka zehatz eta egituratzaileak, klase herrikoien beharrei argi eta garbi erantzuten dietenak.

§6 Borroka zehatz horien artean, Bizik, tokiko hainbat eragilek jorratu duten elikaduraren gizarte segurantzaren inguruko eztabaidak indartzeko manierarik onena aztertuko du. Gai honek elikadura, laborantza, osasuna eta ekonomia lotzen ditu esperimentazioa aitzinikusiz.

3. Alternatiba konkretuak zabaldu

§1 Azken urteotan alternatibak ugaritu eta garatu dira. Helburua gero eta aterabide sendoagoak eraikitzea eta haien sendotasuna bermatzea da, zailtasunei eta erronka berriei buru egiteko aukera izan dezaten, pixkanaka ohiko bilakatuz.

§2 Bizik tresna berriak ezarriko ditu eskualdeko alternatiba zehatzekin sinergian lan egiteko. Bizi! bereziki saiaturko da irabaz daitezkeen borroka identifikatzen, alternatibekin batera borrokatu beharrekoak, maila gorago eta zabalagoetara trantsizioa oztopatzen duten traben kentzeko.



4. Enpleguak: Iparraldeko ekonomia irudikatu

§1 Bizik Iparraldeko klima-lanpostuei buruzko bere ikerketa eguneratuko du eta zabalduko, eraldaketa ekologikoak enplegu eta ekonomia beharrei nola erantzun diezaiekeen erakusteko eta beharrezko eraldaketen eskala kontuan harturik beldur legitimoak baretzeko. Lan honek klima-suntsitzaileak diren sektoreen birmoldaketa planifikatua sustatzen duten kanpainetarako bidea ireki dezake, hala nola aeronautika, eta kostaldeko eskualdearen eta barnealdeko Ipar Euskal Herriaren aldeko lurralde-berronkatzea ahalbidetzeko.

§2 Oro har, Bizik arreta berezia jarriko du enplegua eta klima lerrokatzean bere proposamen guzietan, Mugerreko hezeguneak babesteko egin lanarekin bezala, tokiko lanpostuak atxikitzen direla segurtatuz.

§3 Frantses Estatuak RSAren ordainketa astean 15 orduko jardueraren baldintzapean ezartzen duen une honetan (langabezia estrukturala eta RSAko pertsona asko desgaituak direla ukatuz) eta dirua gero eta esku gutiagotan kontzentratzen den honetan, aberastasunaren birbanaketa berriz ere gai zentrala bilakatu behar da, espekulazioaren kontrako borrokaekin sinergian. Bizik birbanaketa finagoa ahalbidetzeko, Euskal Elkargoak kudeaturiko zerga ekologikoaren eskaera bat garatuko du.

5. Habitata

§1 Eraikuntza lehentasunezko sektorea da klima-aldaketaren kontrako borrokan eta energia-trantsizioaren arloan. Biztanleei egokituriko eraikinen eraikuntza gizarte-arazo garrantzitsua da. Hego Akitaniako eraikuntza xuhurraren ituna argitaratu eta gero, helburua orain haren edukia tokiko politika publikoetan integratzea defendatzea eta babestea da, eraikuntza-egituren aniztasunarekin (elkartek, enpresak, etab.) bat etorritz.

6. Garraioak

§1 Bizik bere epe luzeko lanean segituko du oro-autoz-ari alternatibak ezartzeko, garraioa baita Ipar Euskal Herrian berotegi-efektuko gasen isurketa nagusia sortzen duen sektorea eta garraioak kutsadura, kostu handiak eta auto ilarak sortzen baititu. BAB-n bizikleta-sare jarraitu, seguru eta praktikoa baten aldeko ekintzei bukaera eman gabe, garraio publikoari buruzko kanpainak ere aztertuko dira, bizilagunen behar eta itxaropenetan eta beste eremu geografiko batzuetan oinarriturik.



7. Digitala

§1 Tokiko eragile digitalekin batera, Bizik smartphone-en arloan parte hartuko du (inpaktu ekologikoa eta pribatutasuna, alternatiba jasangarri eta burujabeak), X sarea uzteko beharra sakonduko (ondorio politikoak, alternatiba posibleak) eta GAFAM-i buru egiteko burujabetza digitalaren eraikuntza indartuko (metamorfosiaren zerbitzuko tresna libreak, ekipamenduen berrerabilpena, hondakinen murrizketa).

8. Lurraldeen arteko elkartasuna antolatu



§1 Paraleloki, ezinbestekoa izanen da eskuin muturreko ideien eta praktiken biktimen aurrean elkartasun konkretua praktikatzeari. Lehenik eskuin muturrekoen ardi beltzak diren migratzaileekin: Iparraldetik pasatzen edo bertan instalatzen direnak. Elkartasun adibide horrek hurrengo hamarkadetan mundu aldakor batean ezinbestekoak izanen diren elkartasun gero eta indartsuagoen hazkunderako hazia izan behar du. Izan ere, migrazio kopurua handituko da munduan zehar, klima aldaketaren eta baliabideen inguruko gatazken ondorioz.

§2 Horrez gain, Euskal Herriko sentimenduaren indartzea beharrezkoa da, ikuspegi inklusibo eta nazional baten bidez, edonork bere lekua duela eta ongietorria dela senti dezan.

§3 Azkenik, lurraldeari emandako garrantziak lurraldeen arteko menpekotasuna eta elkartasunarekin bat egiten du. Klima aldaketak elkartasun globala eskatzen digu: Euskal Herrian ekologia eraldaketa lortzen badugu ere, gure etorkizuna arriskuan egonen da beste lurraldeek ez badute bide bera segitzen. Hori dela eta, Bizik hexagonoko sareen (Alternatiba eta ANV-COP21, Amis de la Terre, Réseau Action Climat) hausnarketa eta proposamenetan parte hartuko du. Hegoaldean, azken urteetan burujabetza konkretuen inguruko ekimenak sortu dira, eta Bizik sinergia garatzen segituko du bertako eragileekin. Bestalde, mugako beste lurraldeekin lankidetzat bat aztertuta izanen da (Landesetako hegoaldea, Biarno).

9. Klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko erresilientzia eta egokitzapena antolatu

§1 Muturreko klima gertakariak gero eta gehiago eragingo dute biztanleriaren bizitzan, bereziki klase herrikoien artean, gehiago lehen lerroan direlako eta aurre egiteko baliabide gutiago dutelako. Arazo berriak sortuko dituzte, hala nola aseguratzen ordainketa-gabezia arriskuak.

§2 Muturreko gertakari hauek etorkizuneko hondamendiaren adibideak dira, eta larrituko dira. Bizik ekintzak segituko ditu hondamendi hauen arrazoiak argitzeko eta arduradunak salatzeke, eta "sistema aldatu behar dugu, ez klima" kontzientzia zabaltzeko.

§3 Bizik parte hartuko du klima-hondamendiaren biktimekin elkartasunean, hunkituak diren sektoreekin elkarlanean.

§4 Bizik erresilientzia indartzeko lan egingo du arrisku handienetan, ondorio kaltegarriak saihesteko.

§5 Lehenago, egokitzapenari buruzko barne-formakuntzako lan bat egingen da Bizin, eta irakaspenak talde tematikoetan txertatuko dira.

C – Politika klimatizidei buru egin

1. Proiektu klimatizida berriak geldiarazi

§1 Lurralde iraunkor eta erresiliente baten eraikitzeak politika klimatiziden areagotzea eta aterabide faltsuen hedapena eragozteak ere dakar. Bizik, bereziki, trabatuko du Frantziako hego-mendebaldeko AHTaren eraikuntza.

§2 Bizik berriz bultzatuko du azken urteetan hain presente izan ez den erradikaltasun ez-bortitza, mobilizazio jendetsuen eta ekintza gatazkatsuen bidez, eta, ondorioz, gerta litezkeen atxilotekiei eta epaiketekiei buru egiteko prest izanen da.



2. Helegiteak aurkeztu

3. Eskuin muturreko ideiei buru egin

§3 Aitzinetik zerrendatutako herri ekologiari buruzko lan ardatzak erabakigarriak izanen dira ere. Jendearen beharrei aterabide zehatzen bidez erantzunez kenduko zaizkie beldurrak herritarrei, eta horrela apalduko da eskuin muturraren proposamenekiko herritarren atxikimendua.

§5 Azken bi hamarkadetan, eskuin muturrak arrakastaz inposatu ditu bere hizkuntza eta baloreak, batez ere gizon gazteen artean, diskurtso xenofoboa baina baita maskulinista ere zabalduz hasieran esplizituki politikoak ez ziren espazioetan. Mugimendu honi buru egiteko kontra-diskurtso bat behar da, munduaz dugun ikuspegia hedatzeko lelo eta eslogan simple eta eraginkorren inguruan egituratua. Horrek ere hainbat espaziotan (sare sozialak, espazio publikoak, etab.) dugun presentzia berraztertzea dakar.

4. Presidentetzarako hauteskundeak eta balizko krisi politikoak

§1 2027ko presidentetzarako hauteskundeak erabakigarriak izanen dira, eskuin muturra boterearen atean delarik. Haren garaipenak inarrosaldi paregabeak eragingo litzuzke. Estrategia bat landu behar da Iparraldeko hainbat sektore militanterekin, baita Alternatiba sarearen barnean ere, eraginkortasun handiena kausitzeko eta helburu egokia lortzeko.

§2 Anartean, ezegonkortasun handiko urteak biziko ditugu, zeinetan krisi politikoak izan ditzakegun. Erreaktibotasuna ezinbestekoa izanen da gobernua kargugabetzean edo Diputatu Biltzarra desegiteko egoeretan, eskuin muturrak gaur egun duen boterea baino gehiago eskura ez dezan.



4 | BIZIREN ANTOLAKETA ETA IBILMOLDEA HOBETU

«Zerbait egin nahi duenak bidea aurkitzen du; deus egin nahi ez duenak aitzakia aurkitzen du». Arabiar atsotitza



A - Eskuin muturrari eta gero eta handiagoa den klima-larrialdiari ihardukitzen

1. Gure aktibitateak segurtatu, gure antolakuntza egokituz

§1 Bizik bere antolakuntza-kultura egokituko du eskuin muturra boterera heltzeko arriskuari. Errepresioa eta kolpe gogorretarako prestatu beharko da (noiznahiko epaketak, isun handiak, elkartzeko askatasun murrizketak), kontra-podereak garatuz eta independentzia osoa bermatuz.

§2 Bizik arriskueta egokituriko praktikak hartuko ditu (egoitzen, ekipamenduen, pertsonen eta jardueren konfidentzialtasunari dagokionez), laguntzaileak uxatuko lituzkeen eta aktibitate militantzia ezin gauzatua bilakatuko lukeen paranoian erori gabe haatik.

2. Gure komunikazio tresnak egokitu

§1 Sare sozialak eta gero eta komunikabide gehiago eskuin muturretik hurbil diren miliardunek erosten dituzten garaiotan, Bizi! elkarteak herrian lan eginez (karrika afixak, etxez-etxekoa, merkatuak, ekitaldietan izatea...) leku publikoan gehiago nola koka gaitzkeen aztertuko du.

§2 Halarik ere, ez dugu sare sozialen aldea osoki utzi behar eta dauden tresnen eta erabiltzen diren edukien bilakaerari so jarraitu beharko dugu, adin tarte edota herritar mota zenbaitekiko komunikazioa eten ez dezagun.

§3 Euskal sare sozialak (hala nola Mastodon) geure egin ditzakegu Hegoaldeko sarea erakunde hurbilenetatik haratago hedatzeko (hala nola ELA edo Hernani Burujabe), tokiko burujabetzak eraikitze bidean.

§4 Ikuspuntu horretatik, ahal bezainbat jenderengana heltzeko asmoz, modernizatu beharko ditugu komunikazio digitaleko geure tresnak. Azken hilabeteotan geldirik utzi genuen lanari ekin eta hortik webgune moderno eta intuitiboa lor dezakegu.

§5 Gure kanpainak eta ekintzak ezagutzera ematen jarraitzeko, egun erabiltzen denari jarraitu beharko diogu geure sare sozialen erabileran. Hainbat jende motarengana heltzeko aukera emanen diguten hainbat sare sozial erabiltzen jarraitu beharko dugu (prentsa eta adin desberdinak). Horrela bideo eduki erakargarri eta elkarreragileak garatuko ditugu. Gure tresnen bidez, kide egitera eta engaiatzera eraman dezaketen kontakizunekin hornitu beharko ditugu geure kanpainak.



B - Azpiegiturak: abiadura handiagora pasatu

1. Lokal berriak, tresna berriak

§1 Hamar urte luze dira Patxokia ezinbesteko lekua zaigula Bizi! elkartearen lanean: logistika lantegiak, militanteen ekitaldien eta arrats saioen antolakuntza, Baionako besten irekitze ekitaldia. Patxoki berria sortuko da heldu diren urteotan, elkarlanean Manu Robles-Arangiz Fundazioarekin, Aldarekin eta Bizitegien Langile Batzordearekin (COL erakundea). Patxoki horrek honako jarduera hauek bilduko ditu bere bost solairuetan: ostatua eta jatetxea, elkartearen arteko lanetarako lokalak, mintzaldi aretoa 180tik gora lekurekin, taldeentzako aldi baterako harrera eta ostatalekuak. Horren gauzatzeak trantsizio fase bat ekarriko digu geure lokalen kudeaketan, baita haien antolatze eta apaintze talde lanetan.



§2 Robles-Arangiz familiak Beskoitzen etxe bat ondareztatu digunez, paraleloki proiektu bat ireki da, gure ekosistemak kudeatzeko duen formakuntza zentro eta taldeen harreragune bat sortzeko. Oronen buru leku hortan iraganen lirateke formakuntzak, seminarioak, lan asteburuak, gogoeta egunak, material sortze tailerrak. Heldu diren urteetako erronka izanen da lekuaren arraberritzea, antolatzea eta abiaraztea, Baionatik hamabost bat kilometrotara erabilera anitzeko gune baten ukaiteko.

§3 Azkenik, MRA Fundazioa, Patxoki elkarte eta Enbatarekin, Bizik tresna berri bat sortu du: Eraiki funtsa, gure eraikin eta tresnak modu iraunkorrean kudeatzeko xedearekin. Eraikik errezebitzen ahalko ditu emaitza arruntak, ondare emaitzak edo bizi-asegurantzak, gure aktibitateak materialki edo diruztatze bidez laguntzeko. Hau hurrengo urteetan zehar ezagutaraziko dugu.

2. Gure handinahikeriaren ahalak ukan

§1 Biziren logistikaz arduratzen den Jakazan/k taldeak xantier horiekin laguntzaile berrien biltzeko parada ukanen du. Oronen buru, leku berri horrek orain baino ahalbide askoz gehiago irekiko du.

§2 Bizik bestalde bere lantalde guzien antolaketara pertsona berriak erakarri nahi ditu (eskulanak, sortze lanak, kontzertuak, otorduak proposatuz) gure elkarteko militanteen aniztasuna handitzen laguntzeko.

§3 Epe hortan zehar, Bizik «antolaketa arduradun» postu baten sortzearen egingarritasuna aztertuko du, gertakariak antolatzeko, laguntzaile taldeen osatzeko eta hauek gaitasun hartzen laguntzeko. Erakunde batek ideia hoberenak ukan ditzake, baina debalde dabil konkretuki gauzatzeko gaitasunik ez badu.

§4 Bizik Euskal Herriko birziklagune, baliabide gune eta repair-kafeak sustatu eta ezagutaraziko ditu, alternatiba garrantzitsuak izateaz gain, gizartearentzat logistika bermeak osatzen dituztelako.



C – Lurraldearen eta haren aniztasunaren irudiz

1. Euskara

§1 Bizik bere itzultzaile taldeak indartuko ditu, euskaldun gehiago sartuko du bere kide eta lantaldeetan, eta bozeramaile karguan irekidura hori gauzatzeko. Halako ekintza plana eramateko, aurretik traben eta ekintza palanken identifikatze lan bat egin beharko du, batez ere gazteengan.

2. Generoa

§1 Bizi! ez da bere kideak murgilduak diren gizartearen genero-ikuspegitik salbuetsia. Genero-plan baten ezarpenak emazteen eta genero-gutiengoaren presentzia indartzea izanen luke helburu, usaian gizonek egiten dituzten lan eta arduretan. Lan hau, neurri batean behintzat, Manu Robles-Arangiz Fundazioak zuzenduriko dinamika berdintsuarekin bultzatua izaten ahalko da.

3. Lurraldea saretu

§1 Baionan jarduerak kontzentratzeari buru egiteko, formula berri batekin tokiko talde berrien sorrera proaktiboa landuko da, baita begirale-sarearen garapen jarraitua ere.

§2 Tokiko talde berri bat sortzea posible da eremu bereko kideen proposamenaren ondoren eta koordinaketak balioztatu ondoren. Aitzinetik taldearen helburuak eta aitzinikusiak diren animatzaileak zehaztuak izan behar dira.

§3 Bizik militante-profilen aniztasuna bermatuko du: kostaldekoak zein barnealdekoak, betidanik Iparraldeko bizilagun direnak zein etorri berriak.

D - Kolektiboaren indarra

1. Laguntzaileak: Biziren lehen aberastasuna

§1 Bizik sarrera ateen aniztasuna bermatuko du eskaintzen diren jarduera motak, mobilizazio gaiak eta gaitasunen aniztasuna erabiliz. Kide berriendako harrera orduen kalitateak eta ikusgarritasunak (bilkurak, aperitifak, erakus-mahaiak, etab.), baita Klima Egonaldiak bezalako ekitaldien antolakuntzak ere, garrantzi handiko zeregina dute. Laguntzaileen integrazio tresnak eta praktika egokiak atxiki beharko dira, baita giro atsegin eta talde espiriturako ezinbestekoak diren lagunarte giroko ekitaldiak ere.

§2 Bizik arreta berezia jarriko dio gazteen inplikazioari eta kideen etengabeko berritzeari, eta horrek sarrera puntu egokienak nabarmentzea eta gure tresnak eta metodoak publiko horren eskura jartzea dakar.

2. Formakuntza



§1 Formakuntza beharrezkoa da eraginkortasunez jarduteko eta klima-larrialdiari buru egiteko dugun denbora mugatua ahal bezain ontsa baliatzeko. Urte anitzeko formakuntza-ziklo bat plantan ezarriko da Biziko militanteei tresna politiko eta teknikoak emateko. Formakuntza-saio publikoak ere diseinatuko dira gurekin bat egiteko molde gisa pentsatuak.

§2 Formakuntzaz harago, Bizik bere burua batez ere formakuntza praktikoaren eskola gisa ikusten du: bertan denen parte-hartzeak lan-metodoak eta trebetasun praktikoak ikasteko parada ematen du, pentsamendu kritikoa lantzekoa, eztabaidatzen ikastekoa, erantzukizuna hartzeko eta antolakuntza kolektiboko ohiturak garatzeko aukera ere ematen du.

3. Finantzak

§1 Finantza-alderdia gure aktibitateen garapenerako muga garrantzitsua denez, finantzaketa-metodo berriak aztertzen segituko dugu, gure bereizgarri diren ernetasun izpiritua eta kostu gutieneko hautuen lehenesteak segurtatuz.

§2 Autofinantzaketa-ohiturak atxiki eta indartu behar dira, lantalde bakoitzak bere kanpainak aitzina eramateko beharrezko finantza-baliabideak aurki ditzan. Hori baldintza ezinbestekoa da erantzukizun kolektiborako eta funtzionamendu orokorrerako.

NORK ZER LORTZEN ?

ZALEAK
EMAITZA EGILEAK
KIDE ONGILEAK
KIDE AKTIBOAK
LAGUNTZAILE ERREGULARARRAK
KOORDINAKETA
EGUNEROKO
KUDEAKETA TALDEA
LANTALDEETAKO
KIDEAK

Igortze handiko emaila: gehienez 2 astean, aktualitate ezberdinei buruz Informazioak

Biltzar Nagusiak: urtean behin, BNrako deiak

Emaitza deiak: noizbehinka, adibideak : abendua, urteko kanpaina

Bizikutzu: bi hilabetero, Biziren berripapera

Hilabeteko biltzarrrak: hilabetean behin, Aipagaiak, Bildumak eta Koordinaketaren hilabeteko sintesiak


Laguntzaileen xokoa: astean behin, laguntzaile erregularren berripapera

Ezohiko komunikazioak: beharrez (adibidez: larrialdiko elkarretaratzea)

Barne komunikazioa: email edo/eta Telegram zerrendekin



BIZIREN FUNTZIONAMENDUA



BIZI AFIXETAN!



Bizi!
buruz jakin nahi duzuen guzia

2025eko argitaraldia



MANIF 1ER MAI | MAIATZAREN 1A
KLIMA, JUSTIZIA SOZIALA:
TAXONS LES RICHES!

11H | PORT SAINT-ESPIRIT CÔTE D'AZUR
1 ETAN SAN-ESPIRITU ZUBIAREN PONTAN, TREN DELTOKI ALDEAN

Bizi! ALPA



LABORANTZA ETA ELIKADURA
JOSAS KLIMATIKOAK DUEK TONAK
LABORANTZA HERRIARRAKIN ALE

Lurraldeari egokirikoa mola ezizuzenak

Laborantza eta elikadura babestu

Lurra eta klima errespetatzen diren laborantza

Zehaztu mola ezizuzenak

3 etaketa hutsik handi bai baino gehiago baliko duke

Hurbileko kanaltak eta zirkuluak

Bizi! ALPA



CAMP CLIMAT
SPÉCIAL 15 ANS DE BIZI!
12-15 SEPT 24
ELIZABERRI-MOUGUERRE

2024KO KLIMA EGONALDIA
BIZIREN 15. URTEBETETZEAN
IRAILAREN 12TIK-15ERA
MUGERRE ELIZABERRIN

Bizi!



BARTHES DE MOUGUERRE.
NON À L'ARTIFICIALISATION!!!

MUGERREKO HEZEGUNEAK
ARTIFIZIALIZAZORIK EZ!
IZENPETU PETIZIOA!

SIGNE LA PETITION

Bizi!



GURE LURRALDEA
PUBLIZITATETIK BABES DEZAGUN

STOP PUB!

PAYS BASQUE ADOUR

ÉLU-ES, AGISSEZ!
HAUTETSU, LOTU!

bizimugi.eu/stop-pub

Bizi!



EUSKAL HERRIA
BURUJABE!

7-8 OCTOBRE 2023 - BAYONNE
BAIONA - 2023 URRIAK 7-8

Bizi!



ITUNA 2020
IPAR EH-KO
METAMORFOSI
EKOLOGIKOA

Bizi!



EUSKAL HERRIA
BURUJABE

BISITA-GIDATUA - 10:00
2023KO UZTAILAREN 8A
ERRIGORA EKIMEN
HERRITARRA:
EUSKAL HERRIA OINARRI
ETA AUZOLANA LANABES

Bizi!



ENE HERRIAREN ALDE EKITEKO
6 MOLDE

Bizi!



IPAR EUSKAL HERRIAN,
METAMORFOSI EKOLOGIKOAREN EGOERA

Geldirik egotearen
«errealismotik» atera

Bizi!



SAINT JEAN DE LUZ
25/09/22 - IGANDEA - DIMANCHE - 15:30
DONIBANE LOHIZUNE

VELOCUTION
TXIRRINDIRAULTZA

DEPART - ABIATZEA:
Square de Verdun - Saint Jean de Luz
Verdun-eko plaza lorategian - Donibane Lohizune

Bizi!



2023ko abenduaren 31an -
URTATS ARRATZALDE
SOLIDARIOA

Bizi!



Euskal Herria Burujabe
Denon mundua eskuetan
berriz har dezagun

Bizi!



EUSKARAZ BIZIN

EUSKARAK ETA ELKARTE BATEK
NOLA ELKAR SUSTATZEN DUTEN

Bizi!



RNREN ERREALITEA
EKOLOGIARI BURUZ
LA RÉALITÉ DU RN SUR
L'ÉCOLOGIE

Le RN refuse de lutter contre l'artificialisation des sols
Le RN a voté contre la remise en état des écosystèmes abîmés
Le RN a voté contre les énergies renouvelables

RNk uko egin dio lurralaren artifizializazioaren kontra borrokatzeari
RNk kalteturiko ekosistemak berreskuratzearen kontra bozkatu du.
RNk energia berriztagarrien kontra bozkatu du.

LE RN DÉTRUIT NOS
CONDITIONS DE VIE SUR TERRE

Faxismoa pikturatu! | Bizi!